



BARREN  
TOKIKOM

# Parisko joskintza Elgoibarren

Alba Esnal



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**  
Etxaldeen administratzailea  
749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184  
rosapf@telefonica.net



Aholkularitza  
kolaboratzailea



## ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



### Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

### Gardentasuna



### Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Notaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

**25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA**

administradores

Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaleen  
Lurrakle Kontseilua

DERRIGORREZKO  
KOLEGIATZEA  
**BAI!**  
MILA ESKER

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► GURE DENDARIEN ALDE

Txalo bat Elgoibarko dendariantzat, herriko denda txikiak galtzeko arriskuaz herritarrak ohartarazteko egindako kanpainagatik. Bada garaia beste balio batzuk kontuan hartuta kontsumitzen ikasteko, nahiz hori korrontearen kontra igeri egitearen parekoa izan.

Gero eta saltoki handi gehiago zabalzen dira. Erraztasunak ematen zaizkie enplegua sortzeko aitzakiarekin. Baina zer enplegu mota, zer kontratu eta zelako soldatak eskaintzen dituzte? Askotan, oso prekarioak. Gurdia berehala betetzeko erosotasun hori eskaintzen digute (pentsatzen genuena baino zerbait gehiago gastatuta beti), eta saltokietara iristeko autoa behar dugu. *Black friday* moduko kanpainak, Outlet salmentak eta on-line bidezko erosketak herritarrak gehiago kontsumitzeko eta marka handiek (Inditex, Amazon...) irabazi handiagoak izan ditzaten sortutakoak dira. Hau da, sarri zergarik ordaindu ez eta Bangladesh, Pakistan eta beste zenbait herrialdetan eskulan merkea lortzeko esplotazioa sustatzen duten marka handien irabaziak handitzeko.

Kontzientzia handiagoarekin kontsumi-

tzen hasteko garaia da. Prezioari bakarrik begiratu beharrean, gertutasunari, ekologikoari (Internet bidezko erosketak garraiatzeko paketeria gutxiago atzera-aurrera furgonetetan) eta bizitza soziala duen herri baten zintzotasunari eta giza kalitateari erreparatzeko garaia da.

Frantzia eta Belgikan herri asko ikusi ditugu galtzen. Zoritxarrez haietan ez da denda txirikik gelditzen kaleetan eta kaleak hutsik daude. Benetan ari gara ongizate-etorkizun baten alde egiten, gure dendak hiltzen utzita?

L.R.

### ► ZERGATIK AITA AGIRRE?

Duela bi hilabete pasa zabaldu zituen gure herriko Kulturgunek ateak eta badaukat kezka bat nire buruan bueltaka dabilena. Zergatik jarri diogu Aita Agirre izena Elgoibarren ireki berri dugun kulturguneari? Eraikina berritu dugu, bai, baina zahar usaina hartzen diot. Zergatik pertsona baten izena? Zergatik apaiz baten izena? Zergatik gizonezko baten izena? Lehendik ere ez al daukagu herriko kale eta eraikinak gizonezkoen izenekin josita? Inoiz lagako al diogu pertsona eta santu

jakin batzuk toki izenekin hilezkor bihurtzeri? Badakit eraikin horretan zegoen ikastetxeak Aita Agirre izena zuela, baina, nire ustez, izanarekin batera izena ere aldatu behar genion eraikinari. Aita Agirre (1863-1941) zein izan zen eta zer egin zuen ikusten jardun dut, eta, nire ustez, ez dago kulturgunerik berri honi Aita Agirre izena jartzeko inolako arrazoirik, "orain arte hala izan delako" ez bada behintzat. Herriko seme kuttun izendatu zuten 1942an eta, aurretik esan dudan moduan, bertan egon zen ikastetxeak ere bere izena izan zuen. Eta, gainera, plazaren izena ere Aita Agirre plaza da, bazuontzat beti Plaza Txikia izango bada ere.

XXI. mendean gaude. Elgoibarko gizarteak aldatu egin da eta toki-izenak gaurkotzea ere badagokigula uste dut. Izan ere, apaiz baten izena eduki behar al du Elgoibarko kultur mugimenduaren erreferentzia izan nahi duen eraikinak? Plaza Txikian zabaldu dugun kulturguneari, bertan egin nahi denari eta egungo gizarteari lotuago egongo den izen bat jartzeko proposamena jarri nahi dut mahai gainean.

Naiara Martin



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzkaldunaren Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

## World Cheese Awards gazta lehiaketan saritutakoak omendu dituzte

**E**usko Jaurlaritzak eta Hazi Fundazioak euskal artzainen lana aitortzeko ekitaldia egin zuten abenduaren 2an Bilbon, eta ekitaldian, World Cheese Awards nazioarteko gazta lehiaketan saritu zituzten 22 euskal gaztagileak omendu zituzten, tartean Elgoibarko Mausitxa. Gaztaren inguruan munduan egiten den lehiaketarik garrantzitsuena da Cheese Awards, eta aurten, Italiako Bergamo hirian egin dute. Guztira, 3.800 gazta marka baino gehiagok hartu zuten parte, eta Idiazabal Jatorri Izendapeneko eta Artzai Gaztako 22 euskal gaztandegik lortu zuten sari bat edo gehiago. Guztira, 42 sari eskuratu zituzten euskal artzainek Bergamon. Elgoibarko Mausitxa gaztandegikoek brontzezko bi domina jaso zituen.



## Ikastolako ikasleen errifa

Ikastolako DBH4ko ikasleek errifak saldu dituzte ikasbidairako dirua lortzeko, eta dagoeneko irten dira zenbaki irabazleak: 1. saria: 91 (ordezkoa, 1314). Siu fisioterapia zentroan masaje bat eskuratuko du saridunak. Bigarren saria 1354 zenbakia izan da (Ordezkoa, 33). Pelegrin eta Bacalaos Alcorta enpresek emandako produktu-sorta jasoko du saridunak. Irabazleak 943 744 441 telefonora deitu beharko du hamabost eguneko epean.

## Piztu dituzte Eguberrietako argiak Elgoibarren, eta urtarrilaren 6ra arte mantenduko dituzte



Joan zen egunean piztu zituzten Elgoibarren Eguberrietako argiak eta Errege Egunera arte, urtarrilaren 6ra arte, argituko dituzte kaleak, 17:30etik 23:00ak bitartean. Elgoibarko Udalak 30.000 euroko aurrekontua du horretarako. LED teknologiako bonbillak direla jakinarazi dute Udaletik eta Maykolux enpresa arduratu dela jartzeaz, bai eta egoki mantentzeaz ere. Kasko historikoan, ohiko lekuetan jarri dituzte eta horrez gain, hainbat eraikin publikotan eta Sigma, Altzola, San Roke, Urazandi, Kurutzelaegi eta Erretxindi auzoetan ere jarri dituzte.

## Gurutze Gorriaren jostailu bilteta

Gipuzkoako Gurutze Gorriak 4.000 jostailu berri behar ditu gizarte-egoera zailean dauden umeei Eguberrietan banatzeko. Jostailu berriak izan behar dira, gerrarekin loturarik ez dutenak, eta ez-sexistak. Elgoibarko Gurutze Gorriak ere bat egin du kanpaina honekin, eta hiru egun jarri ditu jostailuak biltzeko: abenduak 16, 17 eta 23. Astelehenan 10:00etatik 12:00etara, eta asteartean, 16:00etatik 18:00etara eraman behar dira jostailuak Usetxe 1ean duten egoitzara. Aurtengo edizioan 5 edo 10 euroko jostailu-txekeekin ere lagundu daiteke. Pitxintxun daude salgai.

## Elgoibarko errege desfilerako izenemateak, hilaren 16an

Elgoibarko Errege desfilean parte hartu nahi dutenek abenduaren 16an dute izena emateko eguna. Liburutegian hartuko dituzte izenak, 16:30etik 19:00etara. LH4tik DBH1erako ikasleei zuzendutako oharra da.

## Mendaroko errege desfilerako laguntzaileak behar dituzte

Santa Kurutzetik iritsiko dira aurten ere erregeak Mendarora urtarrilaren 5ean, 18:00ak aldera, eta Arno Guraso Elkartetik zabaldu dute laguntzaileak behar dituztela erregeei bidea argitzeko. LH4, LH5 eta LH6ko neska-mutilei dei egin diete izena ematera. Parte hartu nahi dutenek Arno Guraso Elkarrekin zabaldu behar duten izenemate orria bete beharko dute eta desfile egunean oparixoa jasoko dute trukean. Era berean, egun horretan erregeei kantatzeko abesbatza ere sortu nahi dute Lehen Hezkuntzako umeekin eta bi entsegu egun ere zehaztu dituzte: abenduaren 20an eta urtarrilaren 2an eta 3an, 15:30ean, San Agustin aretoan. Interesatuak agertu besterik ez dute.

## Domekara bitartean oinezkoei eman nahi zaie protagonismoa

Elgoibarko Udalak Mugikortasun Iraunkorraren astea izendatu du hau, abenduaren 9tik 15era artekoa, eta hainbat ekimen antolatu dituzte kaleak oinezkoentzat berreskuratu eta erdigunean auto pribatuen presentzia gutxitzeko asmoz. Horretarako, alde zaharreko kaleak itxi egin dituzte motordun ibilgailuentzat. Aurreko urteetan bigarren eskuko merkaturia ere antolatu izan dute eta Udaletik jakinarazi dute aurten ere egiteko asmoa zutela, baina azkenean, arazo tekniko batzuk tarteko, ezin izango dutela.

### EH Bilduren kritika

Bildutik ontzat eman dute ibilgailuak erdigunetik ateratzea, baina horren ondorioak kontuan ez hartzea egotzi diote Udalari. "Udalak modu alde bakarrean hartutako erabaki horrek kalteak eragin dizkie herriko merkatariei, haserreak eta ezinegonak eraginez". Horren harira esan dute merkataritxikiak "nahikoa zailtasun" dituztela beraien egunerokoan, Gabon sasoiari, irabaziak izan ditzaketean sasoiari, zailtasun handiagoak ipintzeko. Arazoari "adarretatik heldu eta konponbide integrala" aztertzeko eskatu diote Udalari. "Urteko zazpi egunetarako hartzen diren neurriek itxura egiteko balio dezakete eta herritarrak kontzientziatzeko, baina ez dira benetako soluzioak". Mahai bat sortzea proposatu diote Udalari eta mahai horretan arlo guztietako eragileek parte hartzea. Bi neurri ere proposatu dituzte: herri autobusa martxan jartzea eta industrialdeetara langileak eramateko autobus publikoak jartzea.

## Ingurumenarekin kezkatuta, Basarteko hainbat gune garbituko dituzte Herri Eskolako ikasleek



Ozeano Barean pilatutako plastikoekin sortu den uhartearen harira, proiektu bat lantzen dihardute Herri Eskolako LH5eko ikasleek, eta ingurumenarekin kezkatuta, Basarteko hainbat gune garbitzeko baimena eta garbiketarako oinarritzko materiala eskatu diote losu Arraiz Hirigintza zinegotziari. Makina Erremintaren Museoa, IMHko tenis pista eta Skateparka dauden inguruan pilatutako plastikoak jasoko dituzte, baina ez dute oraindik eguna zehaztu. 23 ikasle ari dira egitasmo honetan parte hartzen.

## Mahai informatiboa jarriko du Nualak bihar Kalegoen plazan

Desgaitasuna duten lagunen nazioarteko eguna da bihar, abenduak 14, eta Nualak, aniztasun funtzionala eta adimen urritasuna duten pertsonen guraso eta lagunen taldeak, mahai informatiboa jarriko du, Ongizate Sailaren babesarekin. Kalegoen plazan jarriko dute mahaia eta 9:00etatik 13:00etara bitartean hantxe izango dira elkartekideak gaia gizarteratu eta eskura duten informazioa zabaltzeko.

## Euskal Zezenzale Elkartera batzeko deia egin dute

Azaroaren 30ean sortu zuten Euskal Zezenzale Elkartea lasturren egin zuten bilkuran. Bilerara ehun bat lagun azaldu ziren eta ostean, Marques de Saka izeneko bertako ganaduzaleak dozena erdi bigantxa atera zituen plazara errektoriari eta ikusleen gozamenarako. Festa herrikoiak babestu eta sustatzeko sortu dute elkartea. Horretarako, ekintza ezberdinak antolatu nahi dituzte: ganadutegi nahiz errektoriari txapelketak, umeentzako bigantxak, hitzaldiak, argazki lehiaketak... Era berean, jakinarazi dute udalerriri zein zezenzale guztien zerbitzura daudela eta elkartera batzeko deia egin diete Euskal Herriko zezenzale guztiei.

## Euskarazko produktuen katalogoa banatu du Udalak

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak euskarazko produktuen katalogoaren edizio berria banatu du Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen artean. Gurasoentzat eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat ehunka erreferentzia biltzen ditu katalogoak: musika, DVD filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailu eta jokoak, gurasoentzako produktuak... Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa ere egin da. Katalogoa sarean kontsultatzeko bi aukera daude: [katalogoa.eus](http://katalogoa.eus) webgunean edota Elgoibarko Udalaren webgunean, hain zuzen, Euskara Sailaren atalean.

## Herriko kultur eragile ezberdinekin egindako lan-saioan jasotako ahulgune eta aukerak txosten batean bildu ditu EH Bilduk

**P**lazara egitasmoa aurkeztu eta herrirako kultur eskaintzak nolakoa izan beharko lukeen lantzeko lan saioa egin zuen EH Bilduk azaroaren 28an herriko eragileekin, eta orain, batzar hark emandakoarekin osatutako txostena aurkeztu du. Bileran hainbat gabezi identifikatu zituzten, besteak beste honako hauek: eragileen artean zubiak falta direla, agindutakoa ez betetzeak sortzen duen frustrazioa, Udalaren "autoritarismoa", burokraziaren astuna edo motela, eragile ezberdinak zertan ari diren ez jakitzea, Udalaren eta herriko kultur talde ezberdinen artean dagoen distantzia, komunikazio faltagatik batzuek besteen ekintzak zapaltzeko arriskua, herriko eragileek egite duten lanaren errekonozimendu falta, gazte mugimendurik ez egotea eta kulturaren inguruan beti pertsona berdinak mugitzea, daukagun kultur eskaintza saretu gabe egotea eta kultur talde bakoitzak bere publikoa izatea eta ondorioz "garrantzi handiagoa izatea nork antolatzen duen zer antolatzen duen baino".

Eskaintzari dagokionean, sormena falta dela jaso zuten. Lan saiora bildutakoen ustez, dagoen eskaintza "oso kontserbadorea" da, eta urtero antzekoa. Jubilatuentzako kultur eskaintza zabalteko beharra ikusi zuten, bai eta eskolaz kanpoko jardueretan sormena gehiago lantzeko ere, gaur egungo eskaintza lar arautua eta "enkortsetatua" delakoan. Era berean, kultur eragile batzuk "ikusezinak" direla salatu zuten eta "elitista ez den kultura" aldarrikatu. Baliabideetan, berriz, sarri errepikatzen diren gabeziak jaso zituzten: aurrekontu mugatuegiekin lan egin beharra, sormenerako lekuen falta, difusiorako gabeziak, espazio kolaboratiboen falta (ez derrigorrez fisikoak) eta gaur dauden espazioen erabilearen inguruko gogoeta eza.



Gaurko gabezietatik abiatuta 2023an ikusi nahiko luketen argazkia ere irudikatu zuten. Batetik, beharrezko ikusi zuten eragile guztiak biltzeko mahaia sortzea eta lagun bat jartzea hori koordinatzen. Eragileak ikusten dituzte kultura dinamizatzen eta Udala laguntzaile-figuratan, eta parte-hartzea eta elkarlana sustatuta, aukera ikusten dute "denentzako irekiak diren guneak" sortzeko eta herria kulturari begira jartzeko. Garbi dute elkarlana sustatu behar dela, bai eta pertsona eta perfil ezberdinak kontuan hartuko dituzten guneak sortu behar direla ere. Euskara eta euskalduntasuna ardatz duen Kultur eskaintza sustatzearen alde egin zuten, pertsona erdigunean jarri, berdintasuna bermatu eta eraldatzailea izango den eskaintza. Eta guzti horretarako oso beharrezko ikusten dute erreleboak ziurtatzea.

## Soraluzeko Blues Hotsak jaialdian joko dute Jon Gurrutzagak eta Urbil Artolak domekan

Gaur hasi eta domekara bitartean Blues Hotsak jaialdia ospatuko dute Soraluzen. Errabal kultur elkarteak antolatu du jaialdia, Udalaren laguntzarekin, eta bailarako blueszale guztiak gonbidatu dituzte. Hiru blues taldek joko dute bertan: Shirley David & The Silvercacksek, The Allnighters-ek eta Jon Gurrutzagak eta Urbil Artola bikoak. Lehenengo emanaldia gaur izango da. Shirley Davis kantari ingelesa ariko da Herriko Antzokian, 22:00etan hasita. Davisen taldeak musika beltz "gordina" egiten du, "soul hutsa, afrobeat ukitu batekin". Kontzerturako sarrerak emanaldia hasi baino orduerdi lehenago jarriko dituzte salgai antzokiko sarreran, 10 euroan. Bigarren emanaldia bihar izango da. The Allnighters taldeak joko du, Zentroan, 20:00etan. Gasteiztarrak dira eta *rhythm and blues* doinuak lantzen dituzte. Sarrerak emanaldia baino ordu erdi aurretik jarriko dituzte salgai, sarreran, 5 euroan. Domekan, Jon Gurrutzaga eta Urbil Artola bikoaren txanda izango




Arg.: Jairo Berbel

da. Zubian emango dute kontzertua, 13:00etan hasita (eguraldi txarra bada, Zentroan). Euskal kantagintza akustikoaren lagin bat eskainiko dute, bluesaren bidetik interpretatuta. Kontzertu honetarako ez da sarrerarik behar.

**Black Friday** egunaren harira, herriko dendako erakusleihoak belztu zituzten herriko merkatariek, denda txikiak bizi duten egoera beltza azaleratzeko. Denda txikiak itxiko balira herriaren egoera zein izango litzatekeen azaldu nahi izan zuten Txankakua merkatarik elkarteko arduradunek kanpaina honekin, eta uste dute jendearengan eragina izan zuela. Oraingoan, gainera, Txankakuako merkatariek ez ezik, herriko beste hainbat komertzio ere bat egin zuten kanpainarekin. Guztira 98 bat dendarik hartu zuten parte. Sonia Gomez elkarteko presidentea egin du kanpainaren balorazioa.

- AINHOA ANDONEGI -



## ► SONIA GOMEZ TXANKAKUAKO PRESIDENTEA

# “Jendearen kontzientzietan eragin dugula esango nuke”

### ◆ Nolako eragina izan du erakusleihoak belzteko kanpainak?

Jendearengan eragina izan duela uste dut, eta erosteko ohiturei buruzko erreflexio bat bultzatu dugula esango nuke. Zerbaitetarako balio izan duen edo ez, denborak esango digu. Seguruenik ez du askorako balio izango, baina guretzako garrantzitsua izan da herritarrei pentsaraztea zer gertatuko litzatekeen dendak itxiko balira. Arreta deitzea behintzat lortu dugu, eta hori positiboa da.

### ◆ Txankakuako merkatariek gain, beste dendari batzuek ere hartu dute parte kanpainan. Nolako harrera izan du kanpainak dendarien artean?

Oso-oso ona. Kanpaina aurkeztu zitzaizaien momentuan bertan esan zuten gehienek baietz, eta guztira 98 merkatarik hartu genuen parte. Hori Elgoibar bezalako herri batentzat pila bat da. Txankakua barruan 40 bat gaude, eta hortik 98rako aldea handia da. Horrek erakusten du denda txikien egoera be-

netan larria dela. Batzuei Internetek egin die kalte, beste batzuei saltoki handiek... Denda bakoitzak berea dauka, baina denok gabiltza antzera, eta ez Elgoibarren bakarrik. Mundu mailako arazoa da hau.

### ◆ Kanpainaren helburua lortu duzuela esango zenuke?

Jendearen kontzientzian eragin dugula esango nuke, eta uste dut jende asko konturatu dela benetan zein den gure egoera. Azkenean denon artean egin behar dugu honi buelta emateko zerbait, dendariak eta bezeroek elkarlanean. Kontu honetan denok bat gara, eta ez badugu denon artean egiten, ez dugu ezer lortuko. Jendeak behintzat ez dezala sorpresarik hartu negozio bat ixten denean, guk abisatu dugu zein den egoera, azaldu dugu nola gauden eta uste dut orain jende gehienak bada kiela. Gero erosteko ohiturak aldatuko dituzten edo ez beste kontu bat da, baina gure errealitatea zein den erakutsi dugu. Askok esan ziguten herria oso

triste ikusten zela erakusleihoak beltzez estalita, eta hori zen hain zuzen ere erakutsi nahi genuena. Eta hau kate bat da. Dendetan jenderik ez badabil eta ixten badira, gero kafetegietan ere jende gutxiago ibiliko da, ile-apaindegietan... Ekipo berean jokatzeko dugu denok, eta baten egoerak eragina dauka bestearengan.

### ◆ Kanpainaren bigarren zatiri ekin diozue orain: ‘Elkarrekin argitzen dugu’.

Bai, lema horrekin adierazi nahi dugu erakusleihoak kaleak argitzen ditzutela, bizia ematen diotela herriari, eta hein batean segurtasuna ere bai. Elgoibarko kaleak triste daude, oso grisa da dena, eta dendetako erakusleihoak kolorea jartzen dute. Bizitasun horrek jendeari kalera irteteko eta dendak ikustera joateko animoa ematen dio. Lehen ohi-tura handia zegoen dendak ikustera irteteko, baina orain, hori guztia galdu egin da. Denon artean saiatu behar gara hori berreskuratzen.

## ▶ ALBA ESNAL JOSTUNA

Artaziak hartu eta oihalak moztea zen umetan Alba Esnalen (Elgoibar, 1990) jolas gustukuena. Edozein oihal hartzen zuen, eta behin baino gehiagotan hondatu izan zizkion amari arropak. Nagusitu ahala, liburu artean ezkutatzten zituen oihalak, eta eskolarako ikasten ari zen bitartean ere, eskuartean erabiltzen zituen artaziak. Batxilergoa bukatu zuenean Arte Ederrak ikasten hasi zen Leioan, baina, aldi berean frantsesa eta jostungintza eskolak jasotzen hasi zen. Bere buruan Parisera joatea zegoen, goi mailako jostungintza ikastera. Eta halaxe egin zuen. Channel edo Loius Vuitton bezalako etxeetan jardun zuen lanean, eta han erabaki zuen egunen batean bere negozio propioa jarriko zuela. Miquele mertzeria da amets horren emaitza.

- AINHOA ANDONEGI -

# “Jantzi bat irudikatu eta forma hartzen ikustea gustatzen zait gehien”

### ◆ Nolatan erabaki zenuen jostungintza munduan bidea urratzea?

Ez nuen nire burua beste inon imajinatzeko. 10 bat urte nituela amari hartzen nizkion oihalak eta arropak, eta moztu egiten nituen. Amak bere arropen armairua giltzapetu behar izan zuen, denak hondatzen nizkiolako. Beti nenbilen oihal eta artaziekin jolasean. Argi neukan sormenarekin zerikusia zeukan zerbait ikasi nahi nuela, eta Arte Ederrak ikasten hasi nintzen Leioako Unibertsitatean, eskultura alorrean. Oso gustura egin nituen ikasketak eta pila bat ikasi nuen, baina lan mundurako aukera handirik ez nion ikusten hari, eta beste zerbait bilatu behar nuela erabaki nuen. Ebaketa eta prestaketa ikasten hasi nintzen, eta frantses eskolatan eman nuen izena. Parisera joatea zen nire nahia, Goi Mailako Jostungintza ikastera.

### ◆ Paris da Goi Mailako Jostungintzaren hiriburua. Zer ikasi zenuen han?

Goi Mailako Jostungintza irakasten zuten eskola batean egon nintzen, teoria eta praktika uztartuz. Lau egunetan lan egiten genuen, eta egun baten formazioa jasotzen genuen eskolan. Maila handiko jendeak ikasten du han, eta nolabait esateko, profesionalizaziorako azken pausoa da, lan mundurako sarbidea. Ez da erraza izaten han sartzea. Ezinbestekoa izaten da praktikak egiteko enpresa bat aurkitzea, eta eskolak zerbait laguntzen duen arren, praktiketako enpresa norberak aurkitu behar du. Nik ehun



bat enpresatara bidali nuen eskaera, eta batetik bakarrik erantzun zidaten. Channel etxea zen, eta oso pozik hartu nuen.

### ◆ Zelakoa da Channel bezalako etxe batean lan egitea?

Oso interesgarria. Nik pila bat ikasi nuen. Ofizioa oinarri-oinarritik ikasteko aukera ematen dute, eta jostungintzako postu guztiak probatzen dira. Postu bakoitzean bi-hiru aste egin nituen, nire mailari zegokion postura iritsi arte. Garrantzi handia ematen diote jostungintzako katean parte hartzen duten postu guztietako lana ezagutzeari. Espainian ere badaude jostungintza eskola onak, baina gehiago daude diseinura bideratuta. Hau da, arropak diseinatzen dituzte, baina gero, kanpoan josten dira. Baina nik ez nuen diseinua landu nahi. Goi Mailako Jostungintza ikasi nahi nuen, eta hori, gaur gaurkoz, Parisen bakarrik dago. Parisko industria nagusia moda da.

### ◆ Zenbat denbora egin zenuen Parisen?

la lau urte! Mundu gogorra iruditu zitzaidan modarena. Kontentzia handia dago, etxe handiak bata bestearen beldur dira, eta jendea ez da asko fidatzen. Lehenengo, Channelen egon nintzen, eta gero, Loius Vuittonen. Bizitzaz ere asko ikasi nuen Parisen, pertsona moduan garatzeko balio izan zidan, eta umea ere han izan nuen. Ez nekien noiz itzuliko nintzen, baina han nengola erabaki nuen egunen batean nire negozio propioa izango nuela, eta une hori iristen zenean itzuliko nintzela.



### ◆ Itzuli zinen, eta Miquela zabaldu zenuen. Zein da dendaren oinarria?

Miquela nire bigarren abizena da, amaren abizena. Aititza zen Miquela, eta bera izan zen gauza hauetan hastera gehien animatu ninduen. Umea nintzela artilea erostera eramaten ninduen, eta iruditzen zitzaion bere bilobak ezin hobeto josten zuela. Horrelakoak dira aititza guztiak! Parisera joan aurretikoan hil zen. Berak ez zuen nahi ni kanpora joatea, pena ematen ziola esaten zidan, eta bere omenez jarri nion dendari izen hau. Mertzeria bat da, eta horrez gain, umeentzako arropak saltzen ditugu, batzuk guk eskuz eginikoak. Opariak egiteko produktu egokiak direla iruditzen zait. Puntua egiten eta josten ikasteko klaseak ere ematen ditut, eta esan behar dut klase horiei esker eusten diodala negoziari. Gaur egun Internetek eta saltoki handiek min handia egin diote merkataritza txikiari eta horiekin lehiatzea oso zaila da. Lan bikoitza egin behar dugu, gutxieneko etekina lortzeko. Dendaz gain, eskolak eman behar ditut, sare sozialetan argazkiak jarri eta produktuak erakutsi, Internetez saldu... Merkataritza txikia egoera oso larrian dago.

### ◆ Nolako lan baldintzak daude jostintzan?

Jostintzak ordu asko eskatzen ditu, eta hori ez dago ordainduta. Lanbide honetan ezin da produktu baten prezioa orduka kobratu. Niri hau da munduan gehien gustatzen zaidana, nire pasioa jostea da, eta produktu bat kobratzen dudanean ez dut pentsatzen zenbat ordu pasatu ditudan lanean. Azken batean, nire zaletasun bat lanbide bilakatu dut eta nire ametsa betetzen ari naiz. Gaur egun arropa oso merke erosteko aukera ere badago, eta ni ez naiz inor esateko ez dela arropa hori erosi behar, baina nik ez dut erosten. Uste dut jende askok erosten duela merkeak direlako, eta ez behar duelako, eta luzera arropa horiek ez gaituztela asetzen. Modarena munduan gehien kutsatzen duen bigarren industria da. Gainera, jendea oso baldintza txarretan ari da lanean, eta ekoizten den arroparen zati handi batek zakarrontzian bukatzen du bi urteko epean, edo askotan, saldu aurretik. Arduraz erostearen aldekoa naiz, benetan behar duguna bakarrik erostearen aldekoa. Ulertzen dut, hala ere, gaur egungo soldatekin jendeak gauza merkeak erostea, baina batzuetan hobe da zapata pare on bat erostea, lau merke baino. Erosteko ohiturak asko aldatu dira: gure aiton-amonon garaian ez zegoen Internet, eta autorik ere ez zeukaten, orduan dena herrian erosten zuten. Ez ziren oporretan joaten, ez zeukaten gimnasioko kuota ordaindu beharrik... Gaur egun dena nahi dugu, eta soldatak ez du denerako ematen. Horregatik, merke erostera jotzen dugu, horren atzean dagoen guzti kontuan hartu gabe.

### ◆ Jostintza emakumeekin lotzen da askotan. Zein ezaugarritako jendea daukazu josteko klaseetan?

Gizonezko bakarra etortzen da, 14 urteko mutiko bat. Uste nuen adineko jendea etorriko zela batez ere, baina 40 urteren bueltakoak dira gehienak. Askok ume txikiak dituzte, eta ilusioa egiten die umearentzako arroparen bat egitea. Egia da jostungintza emakumei lotzen zaiela batez ere, baina gizonezko sastre

onak ere badaude. Channelen egon nintzenean emakumezkoak ziren gehiago, baina Louis Vuittonen, adibidez, gizonezko gehiago zegoen. Nik argi utzi nahi dut edonor dela josteko gai. Egia da batzuek esku zakarragoak dituztela, baina lehen emakume eta gizonezko guztiak konpontzen zituzten euren arropak, beraz, josteko ahalmena jende guztiak dauka. Gaur egun, ez dago arropak konpontzeko behar hori, eta gehiago da zaletasun kontua.

### ◆ Jostintza emakumeen ahaldunderako tresna baliagarria dela diote feministek.

Ba bai, gure taldeetan ere giro oso polita sortzen da, eta emakumeek esaten dute beraien momentua izaten dela tarte hori. Beraien gauzetaz hitz egiten dute josten ari diren bitartean, eta gustura egoten dira.

### ◆ Zein abantaila ditu norbere arropak egiteko gai izateak?

Nik ez dut moda jarraitzen, eta josten jakiteak nire gustuko arropak egiteko aukera ematen dit. Gaur egun uste dut ez dugula kontuan hartzen zer geratzen zaigun ondo ere. Dendara joaten gara eta dagoena erosten dugu. Lehen askoz gehiago egiten zen arropa neurrira, eta jendeak bazekien zer geratzen zitzaion ondo, zer gustatzen zitzaion eta zer nahi zuen, edo jostunak berak gomendatzen zion. Niri patronajea gustatzen zait gehien. Arropa bat buruan irudikatu eta forma hartzen ikustea gustatzen zait gehien. Patroia egin, eta zein forma hartzen duen ikustea da emozionanteena. Jostintzaren artisaun alde hori eta bakoitzak bere gustura josi ahal izatea asko gustatzen zait.



## Kontzezio, Eguberrien atariko jaia

Eguraldi ona lagun, jendetza handia batu zen zapatuan Mendaroko Kontzezio azokara. Sasoiko jenero onena eta dozenaka etxabere jaitsi zituzten kalera baserritarrek eta haren bueltan osatu zuen jai-egitaraua Udalak. Herriko dantzarien dantza saioa, Rockalean taldearen emanaldia eta sagardo lehiaketa izan ziren goizeko ekintza nagusiak, eta herri-kirol saioa arratsaldekoa. Sagardo lehiaketa Aburuzak (Aduna) irabazi zuen, eta arratsaldean, Urrezko aizkolari kopako lehen finalerdia jokatu zuten Eneko Otaño eta Julen Alberdi *Txikia IV.ak*, eta 12 kana erdiko enbor 28:31 ko denboran ebagita, bigarrena sailkatu zen finalerako. Mikel Lopetegi eta Imanol Albizu *Goikoetxe* lehiatu ziren harri jasotzen. 100 kiloko harri zilindroarekin, kubikoarekin eta bolarekin hiru minutuan zeinek altxaldi gehiago egin jokatu zuten, eta Lopetegi gailendu zen, 82 jasoaldirekin. Gabonetako Emakumezkoen Ingude Txapelketako hirugarren jardunaldia ere jokatu zuten. Maite Ariztegi eta Garazi Arruti aritu ziren 10 kiloko ingudearekin minutu eta erdiz lanean, eta Ariztegi nagusitu zen, Arrutik baino zazpi altxaldi gehiago eginda: 92. Herri kirol saioaren ondoren Rockalean taldeak eta Esther eta Pius Dj-ek girotu zuten eta Arno Guraso Elkartek txahal erre pintxoak banatu zituzten.





## “Mendaron egiten dena grabatu nahi dut herri bizia dela erakusteko”

**Paul Lopez** YOUTUBEKO ‘MENDARO ONLINE’ KANALAREN SORTZAILEA

Santanetako bideoa izan zuen estreinakoa, eta geroztik, herrian egin diren egun berezi guztietan kamera hartuta ibili da Paul Lopez (Mendaro, 2007). Zazpi bideo igo ditu Youtubeko ‘Mendaro Online’ kanalera eta ikus-entzunezkoetarako duen afizioa ikusita, ziuur gehiago etorriko direla.

- AINARA ARGOITIA -

### ◆ Kamera hartuta ikusten zaitugu aspaldian. Noiz eta zerk zabaltzatu hasi zinen?

Santanetan grabatu nuen lehenengoa. Betidanik gustatu izan zait antzerkia eta ikus-entzunezkoen mundua eta ikasturte bukaeran, Lehen Hezkuntza bukatu berrian, bideo-kamera bat oparitu zidaten. Kamera jaso nuenean, santanak grabatuko nituela esan nien gurasoei, eta hala egin nuen.

### ◆ Eta igo zenuen bideoa Internetera eta zabaldu zen ikaragarri.

Bai. Egia esan nik ez neukan Youtubera igotzeko asmorik. Jaiak grabatu nahi nituen, besterik ez, baina grabatzen ari nintzela kalean batek baino gehiagok galdetu zidan ea Youtubera igotzeko asmorik neukan. Nik ezetz erantzun nien denei, baina gero, xaxatu ninduten gazte batzuek eta hitz egin nuen amarekin horri buruz ere. Editatu nuen bideoa eta Youtubera ez igotzeko esan zidaten gurasoek, baina abuztuan, nire urtebetetzeetan, bideoa sarera igotzeko baimena oparitu zidaten gurasoek. Eta igo nuen eta zoriondu ninduen jendeak. Horrek ilusio handia egin zidan, eta beste bat grabatzeko gogoa ere bai. Youtuben kanala sortu nuen *Mendaro Online* izenarekin eta geroztik beste sei bideo igo ditut. Grabatu ditut Gara-rock jaialdia iragartzeko bideoa eta jaialdia bera, Aire Libreko Margo Lehiaketa, Gazte Eguna, Emakumeen Indarkeriaren Kontrako Eguna eta Kontzezio azoka.

### ◆ Mendarora mugatu dira zure orain arteko lanak. Ingurura zabaltzeko asmorik baduzu?

Ez. Mendaron egiten dena jaso nahi dut, erakusteko Mendaro herri bizia dela eta gauza interesgarri asko egiten direla. Eguberrietako oporraldian, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Haur Kroa eta Erregeen desfilea grabatzeko asmoa daukat.

### ◆ Garbi duzu hortaz etorkizunean zein bide hartu nahiko zenukeen, ala?

Bai, ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nahiko nuke eta antzerkian jarraitu. 12 urte ditut, eta duela bost bat hasi nintzen antzerkian eta oso-oso gustura nabil. *La Higuera de los bastardos* filmean ere parte hartu nuen aitxitxa Maurorekin.

### ◆ 40 harpidedun ditu zure kanalak eta zure bideorik ikusienak 620 bat ikustaldi ditu. Gustura?

Bai. Hala ere, ez diot horri erreparatzen. Gustatzen zaidalako ari naiz honetan, ez beste ezergatik. Jendeak eskertzen dit eta gustatzen zait, jakina, baina ez dut horregatik egiten.

### ◆ Azkarra bazara behintzat. Kontzezio azokan kamerarekin zenbiltzan eta biharamunerako bideoa sarean zenuen.

Bai. Gustatzen zait grabazioa amaitu eta berehala hastea editatzen. Goiztiarra ere banaiz, dena den, eta grabazio egunean ezin bada, biharamunean jaiki berrian heltzen diot editatzeari. Ikasi ere egin dut, eta orain, azkarrago editatzen dut, eta dardara gutxiagorekin grabatu ere bai, nik uste. Ikasten ari naiz.

# “Etxeko lan txiki batzurekin irtengo dira ikusleak antzokitik”

## ▶ KEPA ERRASTI ‘LUR’ ANTZEZLANAREN EGILEA

‘Lur’ antzezlana taularatuko du Xake produkzioak domekan, Herriko Antzokian, 16:30ean. Ane izeneko mutiko bat da obrako protagonista, bulba duen mutikoa, alegia. Haren aitak izugarri maite du semea, baina ez du bere identitatea onartzen. Transexualitatearen gaia du oinarrian obrak, eta gaiari buruzko hausnarketa egiteko aukera emango dio ikusleari. Kepa Errasti obraren egileak azaldu ditu antzezlari buruzko xehetasunak.

- AINHOA ANDONEGI -



Kepa Errasti erdian, Aneren aitaren paperean.

### ♦ Zein da ‘Lur’ antzezlaren mamia?

Julian jostailu denda baten jabea da. Egun gutxi barru Ane bere bilobak 8 urte beteko ditu, eta Julianek, propio egindako panpin bat oparitu dio. Julianek bidaia bat egitea proposatu dio Aneri. Bidaia honek gauza asko ulertzen lagunduko die, bai Aneri eta bai Joni, umearen aitari. Izan ere, Jonek onarpen arazo bat dauka Ane *pototadun* mutila delako.

### ♦ Zein helbururekin sortu zenuen ‘Lur’ antzezlana?

*Mami Lebrun* gure aurreko lanaren ondoren, zerbait ezberdina probatu nahi genuen, eta txotxongilo edo objektuekin lan egiteko antzezlaren bat sortzea bururatu zitzaigun. Hortik abiatuta bururatu zitzaigun *alter ego* bat moduko panpin bat zeukan ume baten istorioa. Protagonista transexuala izatearena beranduago iritsi zen, eta behin hori finkatuta, gaia ahalik eta errespetu eta maitasun handienarekin tratatzea izan da helburu nagusia. Jendeak gure protagonista ulertu eta haren lekuan jartzea.

### ♦ Protagonista Ane izeneko ume bat da, bulba duen mutikoa. Obraren ikusten da Aneren aitak ez duela onartzen bere semearen identitatea. Nola hartu du, oro har, publikoak gai hau?

Ondo, esango genuke; batez ere, txikienek. Helduok baino filtro eta arazo gutxiago dauzkate gauzak ulertzeko. Oraindik egiteko lan handia badago ere, zorionez, transexualitatea gero eta ikusgarritasun handiagoa hartzen ari da gizartean. Ikusgarritasun hori duela urte batzuk baino handiagoa bada ere, horrek ez du esan nahi oraindik onarpen arazorik ez dagoenik. Besteei gertatzen zaizkien kasuak erraz asko ulertzen ditugu, baina zer gerta-

tuko litzateke etxean tokatuko balitzaigu?

### ♦ Zu zeu zara Aneren aita obran. Zer moduz moldatu zara paper horretan?

Egia esan, bigarren mailako pertsonaia da Aneren aita, eta ez da bereziki zaila izan. Entsegu prozesuan helburu bat jarri genuen: aitaren pertsonaia istorioko “gaiztoa” edo antagonista izanda, pixka bat biguntzea, eta onarpen arazo bat izan arren, bere semea zenbat maite duen uneoro erakustea.

### ♦ Nori zuzendutako obra da?

Familia guztiarentzat sortutako obra da. Garbi geneukan heldu zein haurrei zuzendutako antzezlana egin nahi genuela, eta 7 urtetik aurrerako denentzat dela esaten dugu. Horixe da politena gainera; helduak haurrekin antzezlana ez gozatzen ikustea, batzuek besteengandik ikasten dutelako. Ikusleari ordu bete atsegin bat pasatzeko aukera eskaintzen diogu. Buruari buelta batzuk emango dizkiote ikusleek, eta “etxeko lan” txiki batzurekin irtengo dira antzokitik.

### ♦ Nolako harrera izan du obrak eta nolako kritikak jaso dituzue?

Oso onak. Pasa den urteko Azpeitiko Antzerki Topaketetan Publikoaren Saria eman ziguten, adibidez. Egia esan, bai haurrek eta bai helduek oso ondo jaso dute. Gaian adituagoa den jendeak ere zorionak eman dizkigu gaiaren trataeragatik eta oso pozik gaude horrekin. Azken batean, maitatuak eta onartuak izatearen garrantziaz hitz egiten du obrak eta indarra ideia horretan jartzeak lagundu digu obra sortzen.

## Elgoibarko Euskaraldia Taldeak jendea behar du Euskaraldiaren bigarren edizioa herriko entitateei aurkezteko

**E**uskaraldia ekimenaren lehen edizioan norbakoak izan ziren protagonista, eta bigarren edizio honetan, entitateek ere era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute. Ariketan parte hartu nahi dutela erabakitzen duten entitateek euskaraz lasai jarduteko aukera duten guneak edo



hiztun taldeak identifikatu beharko dituzte. Ariguneak deituko diete gune edo talde horiei. Euskaraz lasai aritzeko gune edo talde babestuak izango dira ariguneak, eta entitateetako hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan aldatzea izango da helburua. Era askotariko entitateak izango dira. Erakunde publikoak eta haien ardurapekoak, kultur eta kirol elkarteak, gizarte mugimenduak, denda-taberna eta jatetxeak, ikastetxeak, enpresak... Dozenaka entitate daude, baina, Elgoibarren, eta Euskaraldia Taldeak jendea behar du entitate horiei aurrez aurre Euskaraldia ariketa zer den aurkezteko. Eragile bakoitzak aukeratuko du zein entitateri aurkeztuko dion: lan egiten duen enpresako zuzendariari, kafea hartzen duen tabernako nagusiari... Eragile-sarean izena ematen dutenek behar duten laguntza eta formazioa jasoko dute aurkezpenak egiteko. Eragile-sare horretan izena eman nahi duenari bi bide eman dizkiote horretarako: Telefonoz 943 741 626 / 643 499 169 edota on-line: [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus).

**Jendea behar dugu**

# EUSKARALDIA

**Elgoibarko entitateetan aurkezteko**


Norberak erabakiko du zein entitateetan aurkeztu nahi duen:


- Lan egiten duzun enpresan
- Irakasle edo guraso zaren ikastetxean
- Bazkide zaren elkarteetan
- Kafea hartzen duzun tabernan
- Erosketak egiten dituzun dendan
- Afiliatua zaren sindikatu edo alderdi politikoan
- ...

Izena ematen duzuenok beharrezkoa den laguntza guztia izango duzue, eta jasoko duzue formazioa, aurkezpenak egiten hasi aurretik.

Eragile-sarean izena emateko:

 [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

 943 741 626

 643 799 169

Gehiago eta hobeto egingo dugu asko bagara!



Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea



## 'La paz y otras lunas' antzezlan emango du gaur Ezezagunak konpainiak Herriko Antzokian



Irabazi asmorik gabeko Ezezagunak konpainiak Aristotelesen obran oinarritutako lana taularatuko du gaur, 20:30ean, Herriko Antzokian: *La paz y otras lunas*. Ezezagunak konpainia 2008. urtean sortu zuten, aniztasun funtzionala duten pertsonen antzerki formazioa eman eta haiekin antzerki obrak sortzeko. Obra honek, gerraz eta sufrimenduz nazkatuta bake bila Olinpora arteko bidea egingo duen Trigeo izeneko nekazari atenastarren ibilerak antzeztuko dituzte.

### Sotano 21 taldeak emango du Aita Agirreko tabernako estreinako kontzertua, hilaren 20an

Atzo, hilak 12, zabaldu zuten Aita Agirreko kulturguneko taberna, eta gaur zortzi izango da estreinako kontzertua bertan. Sotano 21 talde elgoibartarrak emango du hain zuzen ere saio hori. Maria Azpeletak (gitarra eta pianoa), Jon Ander Pascualek (gitarra eta ahotsa), Vicente Santosek (baxua), Alberto Verdascok (ahotsa) eta David Rodriguezek (soinu teknikaria) osatzen dute taldea. Duela hiru bat urte eratu zuten taldea, eta estreinako kontzertua Malape tabernan eman zuten, uztailean. Talde ezagunen abestiekin batera, beraienak ere jotzen dituzte kontzertuetan.



Maddi Mendibil

### Danobatgroupek zehaztu ditu Euskararen Eguneko lehiaketako irabazleak

Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia lemapean bi lehiaketa antolatu zituen Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Eguna ospatzeko, bata langileei zuzendutakoa eta bestea Danobatgroupek kooperatibak dituen herrietako bizilagunei zabalduetakoa. Langileek ariketa batzuk egin behar izan dituzte taldeka eta Garazi Lertxundi eta Nerea Galarzak osatutako bikoa suertatu da irabazle. Bigarren lehiaketan, Danobatgroupek eguneroko lanean gehien erabiltzen dituen hitz tekniko osatutako hiztegian hainbat kontsulta egin behar zituzten lehiakideek eta hiztegian sartzeko hitz berriren bat proposatu. Parte hartzaile guztien artean, eta Basque Culinary Centerren eskutik, 360<sup>ko</sup> esperimentzia gastronomikoa izateko aukera zozkatu zuten, eta Maddi Mendibilek irabazi du.

### Orri markagailu lehiaketa egingo du Udal Liburutegiak

Hirugarren aldia da lehiaketa egiten dutena, eta aurtengorako gaia *Elgoibar eta kirola* izango da. Lehiaketan, Elgoibarren erroldatuta dauden edo Elgoibarren ikasten duten haur eta gazteek parte hartu ahal izango dute, bi mailatan banatuta: 12 urtera artekoak eta 12 urtez gorakoak. Orri markagailuak 210 milimetroko luzera eta 50 milimetroko zabalera izan beharko ditu eta paperean nahiz pdf formatuan aurkeztuko ahal izango dira liburutegian bertan edota [liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus) helbidean, 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen. Egur tailerreko irakasle Paula Herasek eta Gemma Monreal margolari elgoibartarrak osatuko dute epaimahaia.

## Elgoibarren izan dira Erasmus+ programako gazteak



Europako hizkuntza aniztasunaz ohartaraztea helburu duen Erasmus+ programan parte hartu duten Galway hiriko zortzi gazteek astebeteko egonaldia egin dute Euskal Herrian, eta tartean, Elgoibarren ere izan ziren joan zen astean. Elgoibar, Zizurkil eta Donibane Garaziko ikasleekin batera ibili dira hara-hona. Abenduaren 3an, harrera egin zieten Gipuzkoako Foru Aldundian, eta ondoren, Tabakalera bideo-tailerrak egin eta Euskarabentura ekimena ezagutzeko aukera izan zuten. Arratsaldean, Realaren hizkuntza-politika ezagutu zuten, Zubietara egindako bisitan. Hurrengo egunean Hondarribia ezagutu zuten, eta abenduaren 5ean, Durangoko azoka bisitatu ostean, Elgoibarrera etorri ziren. Kiroldedian bazkaldu zuten, eta arratsaldean Gaztelekuan izan ziren. Han, Soziolinguistika eta hizkuntzen biziberritzean aditua den Beñat Garaioeren eskutik hezkuntza eta hizkuntza gutxituen gaia landu zuten, ikus-entzunezkoen eta jolasen bidez. Ostiralean, hilak 6, Iparraldea ezagutu zuten eta larunbatean, Zizurkil. Abenduaren 8an bukatu zuten Euskal Herriko egonaldia.

### Azpeitiko Zelai Luzeko azokan jarri ditu ikusgai Aitor Etxeberriak azken urteotako lan batzuk

Asteburuan zabaldu zuten erakusketa, Foru Pasealekuko 14. zenbakian, Zelai Luzeko bulegoak zeuden eraiikinean. Guztira, hamar artistaren lanak daude ikusgai, tartean Aitor Etxeberria margolari eta eskulturagile mendaroarrarenak. Artea herritarrengana gerturatzeko ahalegina egin dute antolatzaileek, eta artisten lanak ere arte-galeriatan baino merkeago eskuratu ahal izango dira. Erakusketa datozen bi asteburuetan ere bisitatu ahal izango da, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Etxeberriaz gain, beste honako artista hauek ere parte hartu dute erakusketan: Barbara Stammel, Keixeta, Olatz Aguado, Urssy Baterna Art Grupa, Gorka Larrañaga, Iban Izagirre Uranga, Udane Juaristi, Jon Andoni Martin eta Cesar Ragel.

### Argazki erakusketa zabalduko du gaur Mauxitxa txarangak

50 Txiki Elkarrekin argazki erakusketa zabalduko du gaur Mauxitxa txarangak Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Aurretik, 17:30ean, kalejira egingo dute. Azkeneko 50 urteotako Txiki Egunen errepasoa egin dute argazkitan eta hilaren 22ra arteko epea egongo da ikusgai. Erakusketaz gain, dokumental bat ere grabatu dute, eta abenduaren 19an emango dute, Herriko Antzokian. 21:00etarako programatu dute emanaldia eta debalde sartu ahal izango da antzokira.



### Birakako dantzariak kale emanaldia iragarri dute hilaren 20rako

Gabonen atarian, abenduaren 20an, kalera irtingo dira dantzara Biraka konpainiako dantzariak. Maalako plazan hasi eta Kalegoen plazara arteko kalejira egingo dute, San Frantzisko eta San Bartolome kaleetan barrena. Plazan, Gabon abestiz osatutako dantza emanaldia egingo dute. Ekin-tza 19:00etan hasiko da, eta gutxi gorabehera 40 bat minutu iraungo du. Elgoibarko dantzariak gain, Mendaroko, Soraluzeko eta Eibarko dantzariak ere parte hartuko dute, 300 bat lagunek guztira.

## Aspanogirentzako dirua batuko dute Elgoibarko Kirol Solidarioa elkartasun ekimenean



Fibrosi kistikoa gaixotasuna dutenei laguntzeko elkartasun ekitaldia egin zuten iaz Olaizaga kiroldegiko igerilekuan, eta aurtengorako ere antolatu dute Elgoibarren elkartasun ekimen bat. Elgoibarko Kirol Solidarioa deitu diote ekimenari eta iaz baino kirol talde gehiago batu dira ekimenera. Aurten igeriketako, futboleko, eskubaloiko, xakeko eta pilotako kirol taldeek hartuko dute parte ekimenean, abenduaren 14tik 20ra bitartean, eta batzen duten dirua Gipuzkoako Haur Minbizidunen Elkarteari –Aspanogi– emango diote, abenduaren 23an egingo duten ekitaldi batean. Abenduaren 14an, zapatua, Aspanogiren aldeko igeriketa saioa egingo dute Olaizaga kiroldegian, 16:00etatik 20:00etara. Bi kaletan 100 metroko serieak egingo dituzte ekimenera batzen diren lagunek. Parte hartzaile bakoitzak nahi adina serie egin ahal izango ditu, eta guztien artean ehun serie osatu nahi dituzte antolatzaileek. Aspanogirentzat dirua batzeko itsulapiko bat jarriko dute sarreran. Egun berean, zapatuan, partidua jokatu du Alcorta Forging Group eskubalo taldeak Olaizaga kiroldegian (19:30), eta Sanlokoek errifak salduz lortzen duten dirua Aspanogirentzako izango da. Eta gauza bera egingo dute C.D. Elgoibarrek eta Lagunak Pilota Eskolak ere. Lehenak, Haundik abenduaren 21ean Mintxetan jokatu duen partidaren salduko ditu errifak eta bigarrenak, pilota taldekoek, abenduaren 13an eta 20an jokatu dituzten partidetan salduko dituzte. Zubi-Ondo xake taldeak ere bat egin du ekimenarekin, eta Nazioarteko Xake Txapelketa eta Danobat xake txapelketa jokoan dauden bitartean itsulapikoak egongo dira xakelarien ondoan.

### Sabrina Vega Espainiako txapelduna gailendu da emakumeen estreinako xake txapelketan



Zubi-Ondo xake taldeak antolatuta, eta Udaleko Berdintasun Sailaren babesarekin, Createch Medical Emakumeen I. Xake Txapelketa jokatu zuten abenduaren 8an, Aita Agirren. Hogei xakelari aritu ziren lehian, eta egungo Espainiako txapelduna den Sabrina Vega (Kanaria Uharteak, 1987) gailendu zen. Bera zen txapelketa irabazteko favorito argia, eta halaxe berretsi zuen. Vegak Xakeko Maisu Handi titulua edukitzeaz gainera, bost alditan irabazi du Espainiako txapelketa, eta duela gutxi eskuratu zuen azken titulua, azaroaren amaieran, Marbellan jokatuako txapelketan. Las Palmasko xakelariak Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketan ere parte hartu izan du. Emakumeen arteko lehian bera izan zen nagusi. Jokatuako zazpi partidatan zazpi puntu lortu zituen. Maria Goñi sailkatu zen bigarren postuan eta Cecilia Perezek egin zuen hirugarren. Xakelari elgoibartarrek ere hartu zuten parte, eta Mercedes Aja izan zen Elgoibarko Xake Taldekoen artean emaitzarik onena lortu zuena.

### Nazioarteko Xake Txapelketa martxan da

Elgoibarko XXIX. Nazioarteko Xake Txapelketa atzo hasi zen eta goi mailako hamar xakelari abenduaren 18ra arte arituko dira lehian, udaletxeko pleno aretoan. Honakoak dira parte hartzaileak: Adrian Martinez (Euskal Herria), Javier Moreno, Diego del Rey eta Juan Plazuelo (Espainia), Karen Grigoryan (Armenia), Tomas Sosa (Argentina), Paul Velten (Frantzia), Shardut Gagare eta Shalmali Gagare (Indonesia) eta Michael Oratovsky (Israel).





## Europako Kirolaren Herri Onenaren Urrezko Bandera jaso du Elgoibarrek Bruselan

2019ko Europako Kirolaren Herri Onena izendatu zuten Elgoibar urrian, eta izendapenari dagokion Urrezko Bandera jaso zuen Ane Beitiak martitzenean, Bruselan, Europako Parlamentuan egin zuten ekitaldian. ACES Europe (Federation for the Associations of the European Capitals and Cities of Sport) erakundeko lehendakaria den Gian Francesco Lupatteliren eskutik jaso zuen bandera Elgoibarko alkateak. Udaleko agintariek adiztera eman dute sariak "erreputazio" eta "bultzada" handia ematen diola Elgoibari, "Elgoibar mundu mailako kirol-sektoreko foko sozial, politiko eta instituzionalean kokatuz". Alkatearekin batera, Blanca Larrañaga eta Iñigo Loiola zinegotziak, Ramon Mugica Udal Kirol Patronatuko zuzendaria eta Elgoibarko hautagaitza ebaluatu duen Kosice-ko Unibertsitateko (Eslovakia) ordezkaria ere igo ziren saria jasotzera. Elgoibarko Udalak herriko kirol talde eta elkarteek egindako lana aitortu eta eskerrak eman dizkie. Elgoibar kirolaren Europako herri izan den urtean mota askotariko jarduerak antolatu direla nabarmendu dute, "maila nazional eta nazioarteko mailan garrantzi handia duten lehiaketa federatu eta herri mailako



lehiaketa ugari egin dira. Esan daiteke, beraz, elgoibartarrek errena sentitu dutela sari hau, eta kirolak udalerrian duen garrantzia azpimarratu dutela".

### Mintxetako atleta gazteak podiumera igo dira Txindoki krosean



Gipuzkoako kros denboraldiko hirugarren proba jokatu zuten, abenduaren 7an, Ordizian: Txindoki Krosa. Ia 400 saltakarik parte hartu zuten Txindoki atletismo taldeak antolatutako proban, Oianguko zirkuituan. 16 kategoriatan lehiatu ziren, eta 11 lasterketa jokatu zituzten guztira. Mintxeta atletismo taldeko hamabost atleta lehiatu ziren eta gustura itzuli ziren lortutako emaitzekin. Alebin eta infantil nesken taldeek lortu zituzten hirugarren postuak nabarmendu behar dira. Era berean, senior mailako hiru saltakarik (Mikel Agirrebeña, Joseba Tamayo eta Igor Torres) ere hartu zuten parte Ordizian, denboraldi honetan estreinakoz. Elgoibartarren emaitzak [barren.eus](http://barren.eus)-en.

### Leire Egaña txapeldunorde Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan, bigarren urtez jarraian

Iaz moduan txapeldunorde izatea lortu du Leire Egaña ehiztari elgoibartarrak Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan. Abenduaren 7an jokatu zuten txapelketa Andaluziako Osuna herrian. Hemen inguruan jokatzen dituen txapelketetan aurkari gutxi izaten du, ez baitira horrenbeste ehiza lehiaketetan aritzen diren emakumeak. Aldiz, Espainiakoan 20 emakume lehiatu ziren. Anabel Romero ehiztari andaluziarra gailendu zen, 1.050 puntu batuta. Bi unxi eta eper bat ehizatu zituen. Leire Egañak 550 puntu batu zituen, eper bat ehizatuta. Egaña duela hiru urte hasi zen ehiza txapelketetan lehiatzen, eta Euskadiko hiru txapelketa irabazi ditu orain arte, jokatu dituen denak; eta, Espainiakoan lehiatu den hiru aldietan bi aldiz izan da txapeldunorde.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 612 422 256

Josteko eskolak ematen dira Elgoibarren. ☎ 676 517 188

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan.

☎ 665 528 409

Garbiketak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Gavez lan egiteko prest.

☎ 641 426 543

Garbiketak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 637 102 725

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 530 562

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan.

☎ 632 640 801

Goizez edo iluntzetan lan egiteko prest. Adinekoak zaintzeko eta garbiketak egiteko prest. Erreferentzia onak ditut. ☎ 677 155 611

Lanerako prest nago. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka lan egiteko prest.

☎ 602 490 595

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz, eta esperientzia daukat.

☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat.

☎ 688 724 060

Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest nago.

☎ 632 893 515

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai.

☎ 631 931 030

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat.

☎ 685 724 861/943 748 899

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Titulua daukat.

☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest.

☎ 615 526 482

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 658 273 486

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan.

☎ 631 795 790

**Eskaintzak**

Elgoibarko enpresa batean egun erdiz txofer eta biltegi lanak egiteko pertsona behar da. Curriculumuma bidali: *gmirenb@gmail.com*

Neska euskalduna behar da urtariletik aurrera bi ume zaintzeko.

☎ 699 217 721

Odontologoa behar da Ermuko hortz klinika baterako. Bidali curriculumuma: *clnicadentalbajodeba@hotmail.com*

☎ 652 768 569

**ETXEBIZITZAK.....**

Bi logelako etxea alokatzen dut Elgoibarren, egongela, komuna eta sukaldearekin. ☎ 605 083 955

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren.

☎ 631 931 030

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 632 452 026

**BESTELAKOAK.....**

Giltzak aurkitu ditut San Frantzisko kalean, giltzatak gorri batean. Udaltzaingoa laga ditut.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Asociación Española de Administradores de Empresas

**Jakin nahi nuke Komunitateko lehendakariak bere kabuz erabaki dezakeen igogailuak mantentzeko enpresa bati kontratua ez berritzea.**

Egia esan, etxejabeen batzarrak erabaki beharreko gaia da. Egoera horretan, kontratua ez berritzea edo kontratua suntsiaraztea batzarraren esku jarriko balitz, presidentek alde aurretik jakinarazi beharko luke erabaki hori. Izan ere, igogailuak mantentzeko kontratuak bertan behera utzi badaitezke ere, Komunitateak hartu beharko lituzke bere gain kalte-ordainak, betiere, enpresa mantentzaileak sinatutako kontratua alde aurretik eteteak eragiten dizkion kalteei buruzko aditu-txostenaren bidez egiaztatuta.

Kasu horretan, beharrezkoa da lehendakariak komunitateari aurrez jakinaraztea, eta gero, erabakia gehiengo-erregimenaren bidez hartuko du batzarrak.

**Gomendioa: Kontratuak eteteko aukera hori zuzenean aplikatzea dela ulertu behar da igogailuak mantentzeko kontratuetan, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra in-darrean sartu zenetik. Izan ere, espresuki debekatzen dira iraupen-epe handiegiak ezartzen dituzten klausulak edo kontsumitzaileek kontratua eteteko duten eskubidea oztopatzen duten mugak. Kon-tratu mota horretan ezin da ezarri alde aurretik ordaindutako ko-puruak galtzea edo eman ez diren zerbitzuengatikozenbatekoak ordaintzea ahalbidetuko lukeen kostu bidezko kargarik.**



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia 12:00ak baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) epostara bidali.



Zorionak, **po-txola**, asteartean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat Agurtzaneren partez.



Zorionak, **Maddi**, zure 10. urtebetetzean. Asko maite zaitugu. Aitaxo, amatxo eta Irtati.



Zorionak, **Nahia!** Gure printzesak gaur 7 urte! Gozatu! Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Hodeiren partez.



Zorionak, **Marko**, igandean 3 urte beteko dituzulako. Muxu bat etxekoan partez.



Zorionak, **Paula**, hurrengo asteartean 4 urte beteko dituzulako. Muxuak etxekoan partez.



Zorionak, **June**, gaur 2 urte bete dituzulako. Primeran ospatuko dugu. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Angel**, abenduaren 11n urte txo bat egin zenuelako. Denbora honetan zenbat momentu polit! Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak **Oihan**, zure 8. urtebetetzean. Muxu bat familikoan eta bereziki Jare, Danel eta Izaroren partez.



Zorionak, **Izei eta Uhaitz**, gaur urtebete egin duzuelako. Muxu handi bat aittitaren eta izebaren partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**943 744 112**  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo**  
**www.barren.eus webgunean**  
 Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

**ESKAINZA BEREZIA !**

**LAGUNAK**  
 catexoseria textil bogar

**%90ean antzaren lumatekin betetako nordikoak 60€tik aurrera**  
**%90ean antzaren lumatekin betetako burkoa 46€tik aurrera**

250g/m<sup>2</sup>  
 250g/m<sup>2</sup>

Etzeko hautsari alergia diotenentzako egokia  
 Arropa garbigailuan garbitu daiteke; lehortu lehorgailuan.  
 Zerbiaketara perfektziara egokitzen da  
 Bolumena mantentzen du  
 Erraz garbitzen da

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## 13 BARIKUA

**17:30** Mauxitxa txarangaren kalejira.

**18:30** Erakusketa: '50 Txiki elkarrekin'. Mauxitxa Txarangaren argazki erakusketa. Kultur Etxean.

**20:30** Antzerkia: 'La paz y otras lunas'. Ezezagunok antzerki taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

## 14 ZAPATUA

**9:00** Desgaitasuna duten pertsonen nazioarteko egunaren harira, informazio mahaia. Kalegoen plazan. Nuala elkarteak eta Ongizate Sailak antolatuta.

## 15 DOMEKA

**10:15** Danobat Xake Azkar txapelketa. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzaileak: Kirol Patronatua, Danobat, Gipuzkoako Xake Federazioa eta Zubi Ondo Elkarte.

**10:30** Jaiotza lehiaketa. Lanak parrokiako arkupeetara eraman behar dira. Sari banaketa, meza ostean.

**10:45** Uztargi umeen xake txapelketa, Mendaron. Kilimon xake taldeak antolatuta, Uztargi tabernaren babesarekin.

**16:00** Eskola kiroleko xake txapelketa. Kultur Etxeko sotoan.

**16:30** Antzerkia: 'Lur'. Xake Produktzioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 16 ASTELEHENA

**16:30** Erregeen desfilean parte hartzeko izenematea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 17 MARTITZENA

**17:30** Gabonetako emanaldia, San Lazaro egoitzan. Musika Eskolak antolatuta.

**15:00 eta 19:00** Ikastolako DBHko ikasleen jaialdia. Lehen saioa ikasleentzat eta bigarrena, gurasoentzat. Herriko Antzokian.

## 18 EGUAZTENA

**13:30** Nazioarteko Xake Txapelketa eta Eskola Kiroleko Xake Txapelketa sari banaketa. Antolatzaileak: Kirol Patronatua, Euskadiko Xake Federazioa, Zubi Ondo elkarte, Eskola Kirola elkarte.

## 19 EGUENA

**19:00** Isiltasun Eskolaren meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

**19:00** Ameikutz musika eskolako ikasleen jaialdia. San Agustin kulturgunean. Tailerreko umeek, trikitilariak, txistulariak, akordeoi-joleek, biolin-joleek, konboak, gitarra taldea eta abesbatzak hartuko dute parte.

**19:30** Kirol Federatuaren urteko sariak. Kirol Patronatuak antolatuta, Musika Eskolako auditoriumean.

**21:00** Dokumentala: '50 Txiki Elkarrekin'. Mauxitxa Txarangari buruzko dokumentala. Herriko Antzokian, doan.

## 20 BARIKUA

**19:00** 'Girabirakalejira'. Biraka dantza taldearen kalejira. Maalako parkeetik Kalegoen plazara.

**20:00** Kontzertua: Sotano 21. Aita Agirre kulturguneko kafetegian. Antolatzailea: Kultur Kafea.

**20:00** Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. San Bartolome parroki.

**21:30** Zine foruma: 'Rastros de Sándalo'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



I. URTEURRENA

*Arantxa Alberdi Gabilondo*

"Amuskategi baserrikoa"

2018ko abenduaren 12an hil zen, 81 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 14an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretanoi alde z aurretik eskerrak.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
13 BARIKUA	14 ZAPATUA	15 DOMEKA	16 ASTELEHENA	17 MARTITZENA	18 EGUAZTENA	19 EGUENA	20 BARIKUA
Egunez <b>Yudego</b>	Egunez *Oruesagasti *Arriola (Lehen, Etxeberria)	Egunez *Oruesagasti	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez *Ibañez	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Egunez *Fernandez
Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)



EL HOYO

‘El hoyo’

14 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
15 domeka: 19:00  
16 astelehena: 21:30

3SC871B BALAY  
ARROPA LEHORGAILUA



329 €

B maila energetikoa / 7kg  
Arropak ondo zaintzen dituen Softcare danborra.  
Hezetasun sentsore bidezko lehortze sistema

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dandako prezioak / Produktuak agortu arte



Manu Sanchez



## Izaro Etxegibel



**A**rgia da gauzak ikusgai bihurtzen dituen eta begiak hautematen duen erradiazio oro. Argia da esperantza, argia da indarra, argia da poza, argia da gogo, argia da epeltasuna, argia da berotasuna.

Maite dut eguzkiaren argia egunez.

Izarren argiaren azpian, gora begira, sentitzen dudak bakea gauetz. Ilargiaren isla itsasoko olaturen gainean. Tximistek argitua udako gauetako zerua. Ekaitzaren argia. Lerro bihurtikatu eta adarkatu bat eratzen duen argialdi bizi eta laburra, elektrizitate deskarga batek eragina; hodei biren artean edo hodei baten eta luraren artean gertatzen den elektrizitate deskarga.

Itsasargiari so, uretan urrutian galduta, dabilzan itsasontzien argiek liluratzten naute. Itsasaldean, nabigatzaileen lagungarri eta gidari, eraikitzen den dorre argidunak maitemintzen nau. Ilun-

tzean, mendian ikusten ditudan baserrietako sukaldeetako bonbilen argi xumeak. Suaren argiak. Benetako edo beharrezkoa den argiak.

Gezurretako argiak asmatu behar izaten ditugu, ordea, neguan; eta ohiko farolen argiei Gabonetako argiak gehitzen dizkiegu. Koloretako argiz betetzen ditugu kaleak, benetakoak ez diren argiz. Iluna itzaltzeko sortutako argiz. Dirutza xahutzen dugu premia gutxien dagoen tokian.

Julen Pagazaurtunduari irakurri nion moduan, "Nahiago dugu begiak buru gainean ditugun argi dirdiratsuetan iltzatu. Azpian ditugunei destainaz begiratzen diegu, itzaltzeaz dauden argi soilak baino ez dira-eta".

Piztu ditzagun Gabonetako argiak, baina piztu ditzagun baita gu bezain zorioneko ez diren esperantza, indarra, poza, gogo, epeltasuna eta berotasuna ere. Bihar ere guztiontzat argitu dezan eguna.

*"Koloretako argiz betetzen ditugu kaleak, benetakoak ez diren argiz. Iluna itzaltzeko sortutako argiz."*

**etxegain**  
BIZI GUNEA

**elgoibar**  
ARGITU ZURE IKUSPEGIA  
ETA ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

- 2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBIZITZA
- IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN TERRAZAK
- TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK GARAJEA SARRERAREKIN
- GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

WWW.ETXEGAIN.COM

**grupo eibar** inmobiliario  
E: comercial@grupoeibar.com  
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

943 31 66 11  
689 66 08 01

GRUPO FINANCIARIO PER  
**bankoa** Grupo Crédito Agrícola

# Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!

Mikel Gurrutxagaren futboleko botak	"Iritsi gara! Go!azen" liburuak	Goxoki otarrak	Bozgorailuak	Su ta Gar-en kamisetak	Umeentzako hortz garbigailuak
Etxeko zapatilak	Mausitxa gazta	Poltsak	Koloniak	Abanikoak	Baloiak
Cava botilak	Cava botilak	Cava botilak	Cava botilak	Cava botilak	Cava botilak

**Elgoibarko Izarraren aldeko TONBOLA**  
Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara, Kalegoen plazan

1.000 erregalu baino gehiago...

... eta opari gehiago!

Harremanetarako: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 744 112



# ¡ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

TITANIOZKO INPLANTEEN ESKAINTZA BERRIA  
ETA %15eko DESKONTUAK PROTESIETAN



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943 36 63 77